

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko uztailaren 27ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru Dekretuak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Diputatuen Kontseiluaren 54/2016 Foru Dekretua, uztailaren 27koa, aldatzen duena Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 55/2016 Foru dekretua, uztailaren 27koa, aldatzen duena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren erregelamendua.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 474/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzen baitira, sistema multimodal integratu eta elektrifikatuaren bidez Gasteizko garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak idazteko hitzarmenaren Jarraipen Batzorderako.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 475/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, atxikitzen diena Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2016ko ekitaldiko zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamar 2015eko ekitaldiko tokiko kontuak aurkeztu ez dituzten kontzejuei.

Diputatuen Kontseiluaren 476/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, ordaintzen dituena Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2016ko partaidetzak, hain zuzen ere, kuadrilla eta udalei hirugarren hiru hilekokoak eta kontzejuei bigarren sei hilekokoak.

Diputatuen Kontseiluaren 477/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, onartzen duena prozedura ireki bidezko kontratu espediente, udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integratuko sistema informatikoa erosi eta mantentze lan egiteko 2016-2019 aldirako. Gutxi gorabeherako aurrekontua 1.045.000,00 euro da, BEZa barne.

Diputatuen Kontseiluaren 478/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, baimena ematen diona Monasteriogurengo Administrazio Batzarrari Artzainaren etxea biltoki bihurtzeko zaharberritze lanak finantzatzeko mailegu bat hitzartzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 479/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren errekerimendua oinarri hartuta jarduten duena, ministerio horren urriaren 1eko AP/2105/2012 Aginduaren 19. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Diputatuen Kontseiluaren 480/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, Araba Garapen Agentziari ordaintzen diona bere funtzionamendua dela eta aurreikusitako zenbatekoa.

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Diputatuen Kontseiluaren 481/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, igotzen duena Arabako Foru Aldundiko funtzionarioen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 1, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean.

Diputatuen Kontseiluaren 482/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, igotzen duena Arabako Foru Aldundiko goi karguen eta behin-behineko langileen ordainsariak ehuneko 1, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean.

Diputatuen Kontseiluaren 483/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, onartzen duena inprima-tegiko material berezien hornitzaileak homologatzeko esparru akordioa izapidetze arruntez kontratatzeke espedientea, 2019ko abenduaren 31ra arte.

Diputatuen Kontseiluaren 484/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, ebazten duena ikastegietan emandako enplegurako prestakuntzarako eta irabazteko xederik gabeko erakundeek teknologia berriekin loturiko zabalkunde jardunaldiak egiteko 2016ko deialdia.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 485/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, aldatzen duena martxoaren 22ko 156/2016 Erabakia, enpresa talde baten plan bereziari buruzkoa Foru Ogasunean ordaintzeke dituen zerga zorrak kitatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 486/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, baliozkotzen dituena Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostena duten hainbat jardun.

Diputatuen Kontseiluaren 487/2016 Erabakia, onartzen duena Ogasun Zuzendaritzako agiriak paketatu, gorde, zaindu, kontsultatu eta desagerrarazteko zerbitzua 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arteko aldirako prozedura ireki bidez kontratatzeke espedientea. Aurrekontua, higienez ere: 256.000,00 euro (BEZa barne).

Diputatuen Kontseiluaren 488/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, doan eta denbora muga gabe lagatzen diona Artium Fundazioari Eduardo Chillidaren "Arkitekturari omenaldia XIV" eta Richard Serraren "Frinkle Octagon" artelanak erabiltzeko eskubide erreala.

Diputatuen Kontseiluaren 489/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, doan lagatzen diona Arraunketako Euskal Federakundeari Legutioko estropada eremuan kokatutako bi edukiontziren erabilera, uretako kirolak egitearekin zerikusia duen materiala biltzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 490/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikitzen diona "Aliko bidezainaren etxea" izeneko higiezina, zeina Gasteizko Oto hiribidean baitago.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 491/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, luzatzen duena 2016rako zeinuen mintzairaren interprete zerbitzua eskaintzeko, Gasteizko Udalarekin eta "Arabako Gorrak, Arabako Pertsona Gorren Elkarte" elkartearekin izenpetutako hitzarmena.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MIGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 492/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, eteten duena, Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordeak aginduzko txostena egin arte, "Bide segurtasuna hobetzea foru sareko errepideetan. Prebentzio eta arintze jardunak 2015" kontratua ebazteko prozedura.

Diputatuen Kontseiluaren 493/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, "Firmes Alaveses SA eta Nuño y Pescador SA" ABEEri esleitzen dizkiona, 490.694,00 eurotan, BEZa barne, "Foru sareko hainbat errepidetan hartxintarra botaz gainazala tratatzeko proiektua. 2016. urtea" izenekoaren obrak. Gauzatzeko epea: 7 aste.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 494/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, esleitzen dizkiona “Euria Servicios Agroforestales SA” enpresari Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sareko zaintza eta mantentze lanak, gehienez ere 249.865,00 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne, 18 hilabeteko burutzapen epearekin.